



EGUNKARIA

OIHANA. Eguzki izpiak elikagai bihurtuta, zelulosa ekoizteko gai den bakterioa ur gazitan nahiz ur gezitan haz daitezke, eta atmosferatik nitrogenoa xurgatzeko gai dira. Bakterioak baso-soiltzeak saihestuko duela uste dute adituek.

Ainara Argoitia | DONOSTIA

Gizakiaren beharrak asetzeko gero eta baso zati zabalagoak soildu behar izaten dira urtetik urtera. Datuak kezkarriak dira oso. Gauza jakina da gainera, baso-soiltze horrek kliman eta ekosisteman nabarmen eragiten duela, eta ez onerako. Egurra premiazkoa dugu, baina. EEB-Betako ikerketa talde batek, hala ere, bakterio batek egurra-
ren funtzio bera bete dezakeela frogatu berri du.

Zianobakterioa, bizidun bakteriorik zaharrena, zelulosa —landareei zurruntasuna ematen dien polimeroa— ekoizteko gai dela baieztatu berri du Texasko Unibertsitateko (Austin, EEBB) zientzialari talde batek. Alegia, zianobakterioa papera eta egurretik eratorritako beste produktuak egiteko erabilgarri izan daitekeela.

Zianobakterioaren bederatzi espezie ezberdinetan —alga urdinxka izenez ezagutzen duguna da horietako bat— zelulosaren biosintesiaren aztarnak aurkitu ostean ondorioztatu dute hori ikerlariek.

Zelulosa balio handiko polimerotzat dute zientzialariek. Batetik, landareei zurruntasuna emateaz gain, egurra-
ren, kotoiaren eta lihoaren osagai nagusia delako; eta bestetik, plastikoa, lakak, hainbat lehergailu eta zuntz sintetikoak egiteko erabiltzen delako, besteak beste. Horregatik aurrerapen

Basoei atsedena ekarriko omen diena

ZIANOBAKTERIOA, ZELULOSA EKOIZTEKO GAI DEN BAKTERIOA. Papera eta egurretik eratorritako beste produktuak egiteko erabilgarria dela frogatu du ikerketa talde batek

handitzat hartu dute zientzian adituek. Texasko unibertsitateko ikertzaileen aburuz, esaterako, «etorkizunari beste modu batez begiratu ahal izatea ahalbide-
tuko du aurkikuntza honek».

David Nobles ikerketa talde

horretako aditu-
etako baten us-
tez, zelulosaren ekoizpen indus-
triala zianobakteriotik abiatu beharko litzateke. Hartara, ekoizpen industrial bide horretatik egitea lortuz gero, baso-soiltze asko saihestuko lirateke-
ela uste du Noblesek.

Zianobakterioa haztea, gainera, oso da sinplea, «eskura-
rraza». Izan ere, atmosferatik nitrogenoa xurgatzeko gai da bakterio hori eta horregatik ez du aparteko ongarririk behar izaten. Era berean, ur gazitan hazteko gai ere bada. Ur geza-
ren premiarik ere ez du, hortaz.

Animalien eta landareen garapena argitzeko aurkikuntza

Zianobakterioak zelulosa ekoi-
tzi ahal izateko beharrezko di-
ren geneak dituela frogatzeak landare eta animalien garape-
na, eta oro har organismoen ga-
rapena argitzeko ere balio deza-
keela uste du Noblesek.

Malcom Brown ikerketa talde bereko zientzialariak gaineratu duenez, «zianobakterioaren ze-
lulosa ekoizteko geneek landa-
reen geneekin zerikusi estua du-
te; hala, landareen enborra-
ren osaketarako kode genetiko-
a, zuzen-zuzenean, zianobakte-
rioritik datorrela esatera ausar
gaitezke, besteak beste».


BAKTERIOAREN BIZILEKUA

Edonon eta nahi beste

Eguzki argia elikagai duelarik, zelulosa ekoizteko gai den zia-
nobakterioa baldintza oso ezberdinetako ingurutan haz daite-
keela frogatu dute ikerlariek. «Ur gezako nahiz ur gaziko la-
kuan topa ditzakegu bakterio hauek, eta baita denbora luze-
an euririk egiten ez duen leku idorretan ere, basamortuetan
esate baterako», zehaztu du David Nobles Texasko Unibersi-
tateko ikertzaileak. Haren esanetan, Antartikoko bailara leho-
rretan oso ohikoak dira zianobakterioak, eta baita hango hai-
tzetan ere.

Zianobakterioa, baina, ez da beti bakarrik agertzen. Batzue-
tan, beste zelula batzuen barruan agertzen da, «bien mesede-
garri». Landareei kolore berdexka ematen dien zelula —kloro-
plasto-
a— esate baterako zianobakterio mota bat da.

LABURRAN



THE HUBBLE HERITAGE TEAM

Saturnoren irudi bat.

ZIENTZIA

Saturno planetaren ezkutatzearen jarraipena Internetez egingo du Andaluziako Astrofisika Institutuak

Ilargiak Saturno planeta es-
taliko du gaur iluntzean, eta
Andaluziako (Espainia) As-
trofisika Institutuak Interne-
tez egingo du ezkutatze ho-
rren jarraipena. Ilargitik oso
gertu ikusi ahal da gaur
Saturno, iluntzeko 21:30 al-
dera, zeruertzetik 15 gradu-
ra, ekialdeko norabidean.
Minutu gutxitara Ilargiak es-
tali egingo du planeta eta
handik ordu batera agertuko
da, gutxi gorabehera. Ezku-
tatze hori www.iaa.csic.es.
helbidean jarraitu ahal da.

INFORMATIKA

Windows XP programaren kopia piratak agertu dira Asian

Windows XP programaren
kopia piratak agertu dira
Asiako hainbat supermerka-
tutan eta Interneteko zenbait
solas gunetan Microsoft in-
formatika konpainiak haren
aurkezpena egin eta egun gu-
txira. Windows XP progra-
ma bertan agertzeaz gain, ai-
patu zerbitzu horiek progra-
ma hori ezer ordaindu gabe
Internetetik eskuratzeko au-
kera eskaintzen dute, baita
Windows XP programa bai-
menik gabe ez kopiatzeko
Microsoft konpainiak disei-
naturiko mekanismoa ere.

TEKNOLOGIA

Sakelako telefonoetarako deien tonuak baimenik gabe saltzen ari dira konpainia asko

Sakelako telefonoetarako
deien tonuak saltzen dituz-
ten %70 etxek ez dituzte
abestiak saldu ahal izateko
beharrezko diren baimenak.
Musikariek minutu erdiak
diru asko balio duela diote
eta konpainiek, berriz, 30 se-
gundoko tonua ezin dela
abestizat hartu.